



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEKO IKASLEENTZAT

---

# Dibulgazio Lehiaketaren Arautegi Orokorra

---

## Gaien Aurkibidea

<b>1</b>	<b>Definizioak</b>	<b>1</b>
1.1	Dibulgazio Lehiaketa . . . . .	1
1.2	Antolakuntza . . . . .	1
1.3	Epaimahaia . . . . .	1
<b>2</b>	<b>Parte-hartzea</b>	<b>1</b>
<b>3</b>	<b>Araudia</b>	<b>1</b>
3.1	Jokabide Kodea . . . . .	1
3.2	Parte-hartzaileen Hautaketa . . . . .	1
3.3	Salbuespeneko Araudia . . . . .	2
<b>4</b>	<b>Lehiaketa</b>	<b>2</b>
4.1	Lehiaketaren Dinamika . . . . .	2
4.2	Sariak . . . . .	2

# 1 Definizioak

## 1.1 Dibulgazio Lehiaketa

Dibulgazio Lehiaketa Zientzia eta Teknologia Fakultateko lehiaketa bat da, Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoko ikasleen elkarrekin (Zimatek) antolatua.

## 1.2 Antolakuntza

Lehiaketa antolatu eta arautzen duen pertsona taldea; hau da, Zimatek.

## 1.3 Epaimahaia

Antolakuntzatik kanpoko pertsona talde bat izango da, aurkezpenak ebaluatuko dituena.

# 2 Parte-hartzea

- Parte-hartzea bakarkakoa izango da, ez dira taldeak onartuko.
- Parte-hartzaileak Zientzia eta Teknologia Fakultateko ikaslea izan behar du.
- Izena ematea antolakuntzak ezarritako epean egin beharko da.

**Oharra:** Master bat egiten ari diren pertsonak, bai eta Zientzia eta Teknologia Fakultatean edozein gradu edo gradu bikoitza ikasten ari direnak ere, fakultateko ikasleztatik hartuko dira.

# 3 Araudia

## 3.1 Jokabide Kodea

Lehiaketa osoan zehar, parte-hartzaile guztiek fakultateko jokabide kodea errespetatu beharko dute.

Antolakuntzak eskubidea izango du egokitzat jotzen ez duen edozein jokabide kategorian sailkatzeko, baldin eta horrek pertsona baten edo batzuen segurtasuna edo ongizatea arriskuan jar dezakeela uste badu, edo lehiaketaren izaerarekin bat ez datorrela iritziz gero.

Azkenik, nabarmentzekoa da antolakuntzaren erabakiak ezin direla zalantzan jarri edo errekurritu, eta lehiaketa bitartean jakinarazitako edozein erabaki berehala bete beharko dela.

## 3.2 Parte-hartzaileen Hautaketa

Parte-hartzeko baldintzak betetzen dituen edonork izena emateko eskubidea izango du.

Parte-hartzaile gehiegi egonez gero, antolakuntzak izen-emate batzuk baztertuko ditu, parte-hartzaile kopuru egoki batera iritsi arte. Kasu horretan, izena lehenago eman dutenak izango dira lehentasuna dutenak.

Antolakuntzak eskubidea izango du lehiaketa hasi aurretik parte-hartzaileen eskaerak baztertzeko, horretarako arrazoizko argudioak baditu.

### 3.3 Salbuespenezko Araudia

Ondorengo araudiak lehiaketa bitartean gertatzen diren egoera bereziak arautzen ditu:

- Antolakuntzak lehiaketa geldiarazteko edo luzatzeko eskubidea izango du egoera berezietan.
- Araudian jasota ez dauden egoeretan, antolakuntzak izango du erabakia hartzeko eskubidea.

## 4 Lehiaketa

### 4.1 Lehiaketaren Dinamika

Lehiaketak bi fase izango ditu:

- Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 10 minutuko aurkezpena egingo du dibulgazio zientifikoko gai bati buruz.
- Aurkezpen guztiak apirilaren 2an, asteazkenean, goizeko 9:00etan hasiko dira.
- Aurkezpenen ordutegiak ahalik eta gehien moldatzen saiatuko da, ikasgaietako klaseekin gatazkarik egon ez dadin.
- Lehen fasearen ostean, 4 aurkezpen onenak hautatuko dira finalerako.
- Finala Parainfoan izango da, goizeko 11:30etan, ikusleen aurrean.
- Epaimahaiak azken irabazlea aukeratuko du aurkezpenaren kalitatearen arabera.

### 4.2 Sariak

- Lehen saria: 150€ eta "Naukas 2025"ean parte hartzeko aukera.
- Epaimahaiaren iritziz, beste aipamen berezi batzuk eman ahal izango dira.